

Mintzola Fundazioaren eta Mikel Laboa Katedraren deialdia (2019) euskarazko ahozko kultur sorkuntzari buruzko doktorego tesia egiteko

Epaimahaikideak:

Agurtzane Azpeitia Eizagirre doktorea, Gidor Bilbao Telletxea doktorea, Andoni Egaña Makazaga, Jone Miren Hernández doktorea eta Jon Sarasua Maritxalar doktorea.

Aurkezturiko proposamenak:

Bi proiektu aurkeztu dira.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK (Baremoa)

- Proposamenak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatu dira:
 - Hautatutako ikergaiaren egokitasuna, tamaina eta koherentzia, deialdian proposatutako ikerketa-lerroen artean: gehienez 5 PUNTU
 - Proiektuaren ebaluazioa: doktorego-tesia egiteko proiektuaren eta metodologiaren helburuak eta interesa: 20 PUNTU
 - Proiektuaren helburuak eta interesa: gehienez 5 PUNTU
 - Proiektuaren ebaluazio orokorra: esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia: gehienez 5 PUNTU
 - Proiektuaren garapen-maila: gehienez 5 PUNTU
 - Proiektuaren bideragarritasuna: gehienez 5 PUNTU
 - Doktoregaiaren espedientea: CVa eta espediente akademikoa: gehienez 5 PUNTU.
 - Euskarazko tesiak bakarrik onartuko dira.

Ebazpena:

Proiektuak eta puntuazioak ikusi ondoren, epaimahaiak erabaki du, deialdiaren arabera, kontratua 72466347-V NAN zenbakiko hautagaiari eskaintzea eta, kontratuari uko egingo balio edo, erabakia argitaratzen denetik hilabeteko epean kontratua sinatzeko baldintzaren bat ez duela betetzen ikusiko balitz, itxaron-zerrenda hau erabiltzea:

1. 72526299-P

*Donostian, 2019ko maiatzaren 30ean.
Jone M. Hernández García (Epaimahaiburua).*